

KANALAK

Airezko Kabina hau hondartzetan jartzeko asmoa duen gauza bat da, jendeak gorputzetik hondarrak erraz kentzeko bainatu edo han egon ondoren. **Kabina honek ura erabili ordeztu airea aprobetxatzen du**, eta horri esker **jendea azkar eta nahi bezala garbitu daiteke** etxera edo beste toki batera joan aurretik.

Gauza hau **ez da denda txikietan salduko**, ezta MediaMarkt edo antzeko lekuetan ere. **Airezko Kabina zuzenean ipiniko da hondartzetan**, udalak edo hondartza arduradunekin adostasuna lortuta. Asmoa da **hondartzara doazen pertsona guztiek**, batez ere familiak, umeak eta kirola egiten dutenek, erabili ahal izatea.

Kabinei buruzko xehetasunak emateko orri propio bat sortuko dugu sarean. Webgune horretan **azalduko dugu nola dabilen Airezko Kabina**, zer onura dakartzan eta non dauden kokatuak. Gainera, **udalek edo beste erakunde batzuek gurekin harremanetan jarri ahal izango dute**, kabinak hondartzetan jartzeko eskaria egiteko edo gehiago jakiteko.

Hasieran, **Airezko Kabinak Euskadiko hondartzetan jarriko dira, proba gisa**. Jendearen erantzuna ona bada eta kabinak baliagarriak direla ikusten bada, **apurka beste autonomia erkidegoetako hondartzetara zabalduko dira**.

Gauza honen promozioa batez ere internetetik egingo dugu. Sare sozialetan (Instagram, TikTok eta YouTube) **bideo laburrak eta iragarki txikiak ipiniko ditugu**, kabinak nola erabili behar diren erakusteko. Horrez gain, **udan hondartzetan kartelak jarriko dira**, jendeak jakin dezan **Airezko Kabina non dagoen**.

Oro har, **Airezko Kabina hondartzetarako sortutako zerbitzu bat da**, jendearen onura handitzeko eta **hondartzako esperientzia hobea izateko pentsatua**. **Ez da dendetan erosten den produktu bat**, baizik eta **hondartzetan zuzenean erabili daitekeen sistema eroso eta praktikoa**.